# HIZTEGIAN XERKATU



okupatu 492 | 493 onda

**okupatu**
aditza Espazioa bete, toki bat menpean hartu, leku batean finkatu, bertan agintea ezartzeko asmoz: *Etsaiaren armadak **okupatu** zuen hiria.*

**okupazio**
izena Leku bat menpean hartu, bertan finkatzeko asmoz: *Berrogeita hamar urte iraun zuen armada atzerritarren **okupazioak**.*

**okzipital**
izena Burezurrak atzealdean duen hezur laua.

**olagarro**
izena Buru biribila eta zortzi erro dituen itsas animalia jangarria, bere burua etsaiari tinta jaurtiz defendatzen duena: ***Olagarroaren** erroak beldurgarriak dira.*

olagarroa

**olana**
izena Toki bat itzalpean utzi zein babesteko, belak egiteko eta abarrerako erabiltzen den oihal lodia: *Hondartza koloretako **olanaz** betetzen dute udan.*

**olatu**
izena Itsasotik lehorrera eta lehorretik itsasora, norabidea aldatuz doan itsasoko uren mugimendua: *Haize handia dagoenez, **olatu** ikaragarriak daude itsasoan.* SINONIMOA Uhin. Baga.

**oldar**
izena Ikus **eraso**.

**oldarkor**
izenondoa Bat-batean, pentsatu gabe portatzeko joera duena: *Oso mutil **oldarkorra** da.*

**oldartu**
aditza **1.** Ikus **amildu**. **2.** Ikus **eraso**.

**olde**
izena Ikus **gogo**.

**Olentzero**
izena Jesus jaio zenean, berri hau ematera menditik jaitsi omen zen pertsonaia mitologikoa: *Opari asko ekarri al dizkizu **Olentzerok**?*

**olerkari**
izena Ikus **poeta**.

**olerki**
izena Ikus **poema**.

**olgatu**
aditza Ikus **jolastu**.

**olgeta**
izena **1.** Haurrek ongi pasatzeko egiten duten edozein joko: ***Olgetan** ibili gara goiz osoan.* SINONIMOA Jolas. **2.** Norbaiti adarra jo zein barre eragiteko egin edo esaten zaiona. SINONIMOA Txantxa. Broma. Narrita.

**oliba**
izena Olibondoak ematen duen fruitu txiki jangarria, kanpotik biguna eta barrutik hezurduna dena, eta kolore berde iluna zein beltza duena: *Letxuga, tomatea, tipula eta **olibak** jarri ditut entsaladan.* LAMINA (5)

**olinpiada**
izena Lau urtez behin egiten diren nazioarteko kirol-lehiaketa nagusiak: *Marka asko hausten dira **olinpiadetan**.*

**olio**
izena Olibez nahiz beste hazi edo fruitu lehorrez (kakahueteak, artoa eta abar) egiten den likido koipetsua, frijitzeko, janariei zaporea emateko eta abarrerako erabiltzen dena: *Entsaladari gatza, **olioa** eta ozpina bota ohi zaio.*

**oliontzi**
izena Olioa gordetzeko erabiltzen den beira, zeramika zein metalezko ontzi txikia: *Ez ahaztu mahaian **oliontzia** jartzea.*

oliontzia

**olo**
izena **1.** Gizakiak ereindako laborea, animaliak elikatzeko erabiltzen dena: *Oiloari **oloa**, astoari lastoa.* **2. oloak eraiki** Jipoitua izan.

**omen**
izena **1.** Pertsona batek duen ospea, norbaitek besteengan eragiten duen mirespena: *Festa bat egingo dugu zure **omenez**.* SINONIMOA Ospe. Entzute. Fama. Ohore.
partikula **2.** Aditz laguntzailearen aurre-aurrean jarriz gero, ziurtasun eza, «esaten dutenez» adierazten du: *Irudi hau Dalirena **omen** da.* SINONIMOA Ei.

**omenaldi**
izena Pertsona baten omenez burutzen den

**omoplato**
izena Ikus **eskapula**. LAMINA (2)

**on**
izenondoa **1.** Bere egitekoa ongi betetzen duena: *Gurasoek telebista **ona** erosi dute.* * *Bista **ona** daukat.* **2.** Egokia dena: *Eguraldi **ona** dago gaur.* * *Ibiltzea oso **ona** da osasunerako.* SINONIMOA Egoki. **3.** Ikus **zintzo**. **4. errai onak izan** Pertsona ona izan. **5. gibel oneko** Lasaia. **6. hari onekoa ez izan** Gaiztoa izan. **7. onenak eman** Kategoriaz zein osasunez beheratu. **8. (neure...) onetik atera** Haserretu. **9. bide onetik jakin** Bide sinesgarritik jakin. **10. begi onez ikusi edo begiratu** Onartu. **11. onezkoak egin** Adiskidetu. **12. ontzat hartu edo eman** Onartu.
izena **13.** Moralaren arabera, onargarria dena: *Ez da erraza **ona** eta gaitza bereiztea.* **14.** Egoera egokia, onuragarria dena: *Zeure **onerako** esaten dizut.* * *Ez itzazu gauzak bere **onetik** atera.* **15. zerbaitek usain onik ez eman** Ezbehar edo gertakari bat sumatu. **16. onik atera / onik irten** Kalterik gabe gertatu. **17. On** Pertsona baten izenaren aurrean jarrita begirunea adierazten du: ***On** Jose bisitatzera joango gara.* SINONIMOA Jaun.

**onarpen**
izena Zerbait onartu edo ontzat ematea: *Ibonek lagunen **onespena** behar du erabaki guztiak hartzeko.*

**onartezin**
izenondoa Ikus **pairaezin**.

**onartu**
aditza Zerbait edo norbait ontzat eman: *Gurasoek ez dituzte inoiz nire iritziak **onartzen**.* * *Azkenean **onartu** egin dut Arratek eskainitako lanpostua.* SINONIMOA Aprobatu. Ontzat eman.

**onbide**
izena Ikus **bertute**.

**onda**

Lehen hiztegia, Anaya Haritza

*Xerka dezagun*
*- Nola sailkatuak dira hitzak hiztegia zati honetan?*
*- "olagarro, olatu, oldar, oldarkor, oldartu, olde, Olentzero, olerkari...olo" arteko hitz guziak letra berez hasten dira; nola egiten da orduan sailkatzeko?*
*- Nola deitzen dira orrialdeen gainaldean, ezker eta eskuin idatziak diren bi hitzak?*
*- Zer dira hiztegi batek ekartzen ahal dituen informazio guziak ("olagarro "hitzari buruz adibidez)?*

Oroit
-Hiztegi batean xerkatzeko **ordena alfabetikoa** ongi jakin behar da.
-Bi orrialdeetan, gainaldean, ezker eta eskuinaldean diren lehen eta azken hitzak **erreferentzia hitzak** deitzen dira.

-Hiztegi batean **aditzak jokatugabean** agertzen dira (okupatu, oldartu, onartu), **izenak, izenondoak, aditzondoak... mugagabean** (olagarro, olerki, oldarkor).

## Ordena alfabetikoan sailkatzea

**1*Hitz hauek ordena alfabetikoan ordena itzazu.**



a- joare – joko – jolas – jirafa – joan – jin - jokalari

........................................................................................................

b- lotsatu – lotu – lotsa – lotsagarri – lotsagabe - lotsati

........................................................................................................

c- belardi – belarritako – belar – bela – belarrondoko – belarjale - belarri

........................................................................................................

d- zatiketa – zati – zatitu – zatiki – zatikizun – zatitzaile - zatikatu

........................................................................................................

**2*Lodiz den hitza alfabetikoki sailka ezazu.**

a- **hegazti:** hegal – hegalari – hegaldatu – hegazkin – hego - hegoalde

.........................................................................................................

b- **begira:** begi – begikotasun – begilabur – begi-nini – begirada – begirale - begiratu

.........................................................................................................

**3** Lodiz den hitza baino lehen diren hitzak urdinez azpimarra itzazu eta ondotik direnak gorriz.**



a- **aditu:** aditz – adin – adiskide – adio - adizlagun

b-**bele:** beltz – beldur – beltzaran – beldar - beltxarga

**4* Gaizki sailkatuak diren hitzak azpimarra itzazu.**

a- burdina - buruko- burmuin-buru- burruntzali- buruarin - burubero

b- eskaera – eskas – eskailera – eskaini – eskaintza – eskalapoi -

c- eske – eskema – esker – esku - eskertu

d- eskuaira – eskualde – eskubaloi – eskuin - eskubide – eskuila - esku-joko

**Zer hitz mota den jakitea**

**5* Ondoko hitzak zer formetan eta zer hitz klasetan sailkatuak diren idatz ezazu.**

***adib.:*** *behiak = behi – izena*

igerilariak:......................... anaia:........................................

igotzen:............................. erortzen:...................................

mendiak:........................... ederra: ....................................

mirua:...............................

**6* Erreferentzia hitz hauen artean koka daitezkeen bi hitz idatz itzazu.**

***(adib.: Lehen hiztegia, Anaya Haritza hiztegian).***



*a-antonimo - ............................./...........................apaindura*

*b-mesfidatu - ........................../..................;........mihi*

*c-bero- ................................../.............................berriztatu*

*d-lertxun- ............................./...............................limoi*

***7** Erreferentzia hitzen arabera, hitz bakoitza hiztegian non xerkatu behar den seinala ezazu gurutze batez.***

| hitza | erreferentzia hitzak | 2 orrialde horietan da | urrunago | gibelera joan behar |
|---|---|---|---|---|
| *adib.: bazka* | *bata-bazter* | *X* | | |
| lauso | Lauburu - lehen | | | |
| baloi | Bakailao - balea | | | |
| hesi | Heste - higitu | | | |